



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko apirilaren 10a

32. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, unibertsitate-hedapeneko ikastaroei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, hezkuntza-sistema publikoan 50 urtez goiti dituzten irakasle kontratatuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Nafarroako Erriberako osasun etxe bateko fakultatibo batek pediatriako adineko gaixoak artatze-ari zenbaitetan uko egin izateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Mendabiako industrialdearen energia hornidurari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, NA-170 errepidea eraberritzeko lanak zirkulazioa moztu gabe egiteko aukerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, jakiteko zer lurzoru eskaera ari den kudeatzen Nafarroako Gobernua merkataritzarako. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, jakiteko Iruñerrirako merkataritza guneak garatzeko zer aurreikuspen dagoen. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak, betiko merkataritza eta saltoki handi berrien arteko oreka ahalbidetzeko, defendatzen duen merkataritza ereduari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Osasun Departamentuko “Bideko Ama Birjina ospitalea eraberritzeko lanak” izeneko kontusailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, jangela zerbitzua dela-eta zortzi haurtzaindegitako 83 haur intoxikatu izanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, jakiteko zer egiten duen Nafarroako Gobernuak Osasunbidean zahar geratu den baina oraindik erabilgarria den material zein tresneriarekin, berriak erosita ordezkatzan dituen. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, Osasun Departamentuko aurrekontuetan itxaron zerrendak murrizteko aurreikusten diren kontusailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, Osasun Departamentuko “Zurgatzaileak eta beste osasun-produktu batzuk” izeneko kontusailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).

- Galdera, Osasun Departamentuko “Nafarroako Unibertsitatea enpresa lankidearen osasun-laguntza” izeneko kontusailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, Osasun Departamentuko “Nafarroako ospitale publikoak eraberritzeko lanak” izeneko kontusailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, N-121-A errepideko zenbait tartetan hobekuntzak egiteko lanei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, etorkinak gizarteratzeko planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Espainiako Gobernutik Menpekotasunari buruzko Legea garatzeko jaso duen diru kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak azterketarik edo baloraziorik egin duen kalkulatzeko zenbatekoa izanen litzatekeen eskualdeko edo lurraldeko garraioaren linea publikoetako autobus batzuk minusbaliotasun fisikoa duten pertsonentzat egokitzearen kostua. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, Zangozan gazteentzako aterpetxe bat egiteko aukerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, Zangozan zubi berri bat eraikitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, Pirineoetako autobiak Ledeatik iragatean izanen duen trazadurari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, Erakunde Harremanetarako Departamentuaren eta Gizarte Gaietako Departamentuaren artean dauden koordinazio sistemei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, unibertsitate-hedapeneko ikastaroei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du unibertsitate-hedapeneko ikastaroei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko abenduaren 4ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko abenduaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

1. galderaren erantzuna

Unibertsitate hedapenerako ikastaroak antolatzeko programazio, sustapen, betetze eta hedatze lanak egitea dakar, eta horiek ikastaroen gastuen aurrekontuan sartzen dira. Ildo horretatik, egokitzat jotzen dira ondoko kontusaileri buruzko kapituluak: txostengileen eta antolatzaileen bidaiak, irakaskuntza materiala, publizitatea edo posta igorpenak, betiere gastu horiek behar bezala dokumentatzen badira eta aurkezten diren kantitateak antzeko maila eta hedapena duten proiektuekin aldera badaitezke.

2. galderaren erantzuna

Hezkuntza Departamentuak 2004ko martxoaren 26ko 37. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zuen "Nafarroako Unibertsitateen Unibertsitate Hedapenerako 2004ko jarduerak finantzatzeko laguntzetarako" deia –deialdi hori Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusiaren otsailaren 17ko 24/2004 Ebazpenaren bidez finkatu zen-. Deialdi horretan, Tuterako Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalaren (UNED) ikastetxe elkartuak 19 ikastaroko eta 17.500 euroko proiektu bat aurkeztu zuen.

2004ko urriaren 13ko 123. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusiaren iraila-

ren 10eko 156/2004 Ebazpena. Horren bidez, aipaturiko laguntzen deialdia ebatzi zen.

Tuterako UNEDen ikastetxe elkartuari 8.000 euroko dirulaguntza eman zitzaion, hasiera batean 15 ikastaro biltzen zituen proiektua gauzatu ahal izateko. Dirulaguntza hori laguntzak emateko aurrekontu osoaren %5,5 zen.

Azkenean, 12 ikastaro egin ziren; 129 irakas-tordu, guztira.

Tuterako UNEDen ikastetxe elkartuak, bere aldetik, zazpi ikastaroren oroitidazkia eta horietan izandako gastuen justifikazioa (9.894,56 euro) aurkeztu zuen. Hori horrela, dirulaguntza ordaindu zitzaion.

Deialdiaren 6.4. atalean ezarritakoarekin bat, "gastuei dagozkien jatorrizko frogagiriak aurkeztu ondoren ordainduko du laguntzen zenbatekoa. Jatorrizko frogagiriak (edo, ezin denean, eginiko jarduerari dagokion Errektoreordetzak konpultsaturiko fotokopia)"; hala dago jasota fakturak luza-tzeko era arautzen duen martxoaren 8ko 85/1993 Foru Dekretuan.

Hori horrela, laguntzen zenbatekoa ordaindu zen, hain zuzen, ikastaroa egin eta horri zegokion gastuaren justifikazioa aurkeztu ostean.

3. galderaren erantzuna

Tuterako Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalaren ikastetxe elkartuaren urteko aurrekontu arrunta, antzeko erakundeetan gertatzen den moduan, Nafarroako Gobernuak eta Egoitza Nagusiak egindako kreditu transferentzien arabera da. Dirusarreraren kapituluak, estimazioa egin behar izaten da kontusail batzuekin, baldin eta horien aurrekontua prestatzean zenbatekoa izanen den ezagutzen ez bada. Hori da, hain zuzen, unibertsitate hedapenerako ikastaroen kasua -matrikulen dirusarrerak ikasturte batetik bestera alda daitezke-, edo liburuen salmentarena -ezinezkoa da salmenta-kopurua zehaztea, ondoko faktore hauen arabera aldatzen baita: ikasleen

matrikulak, programa aldaketak eta argitaletxeen nobedadeak-.

Nolanahi ere, kasuan kasuko ikastetxearen zuzendaritzari dagokio aurrekontua egitea, eta horretarako, baimendu diren gastuak kontusail egokietara eta behar adinako kreditua dutenetara moldatuko dira.

4. galderaren erantzuna

Aurrekontuan jaso gabe zeuden aparteko gastuak onartu egin dira, betiere Tuterako Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalaren ikastetxe elkartuaren patronatuaren baimenarekin. Hori gertatu da, esaterako, Tuterako ikastetxeko tutoreek jasotako laguntzak Iruñeko ikastetxe elkartuko irakasleek jasotzen dituzten horiekin eguneratu eta berdintzearen ondorioz; edo Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalaren lan hitzarmen kolektiboa Tuterako ikastetxe elkartuko langileei aplikatzearen ondorioz –gastuak areagotu ziren soldatak igo zirelako eta hasierako aurrekontuan jaso ez ziren atzerapenak ordaindu zirelako–.

Komeni da gogoratzea 2005ean Nafarroako Gobernuak gastuen aurrekontuari egindako ekarpena aurreko ekitaldikoa baino txikiagoa izan zela. %16,8ko beherakada izan zuen, hots, aurreko urtean baino 91.438,74 euro gutxiago. Dirusarrerren murriztapen horrek eragina izan zuen gastu orokorretan, funtzionamendu-gastuetan, eta aurrekontuak 82.231,74 euro gutxiago izan zituen; aldi berean, inbertsioen kapituluak beherakada gogorra jasan zuen, 2004ko 19.467 euroetatik 2005ean jasotako 10.260 euroetara. 2005eko ekitaldian kredituarekin izandako zailtasun horiek gorabehera, kontuan izan behar da jarduera akademikoa eza-rritako programazioen arabera garatu zela.

5. galderaren erantzuna

Tuterako Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalaren ikastetxe elkartuan eta Iruñekoan dauden irakasleen postuak parekatuta daude, eta ez dago desberdintasunik irakaskuntzako eta ordainsari erregimenei dagokienez.

Hala nahi izan du Tuterako UNEDen ikastetxe elkartuaren patronatuak, eta hala dago jasota 2000ko martxoaren 22ko eta 2003ko ekainaren 19ko bileren aktetan .

Parekatze hori eguneratua mantentzeko asmoz, aurrekontu-ekitaldiaren hasieran, Tuterako UNEDen ikastetxe elkartuaren idazkaritza harremanetan jarri zen Iruñeko ikastetxearekin, bertako irakasleek jasotzen zituzten dirulaguntzen zenbatekoa zein zen jakiteko eta Tuterakoei kantitate bera aplikatzeko. Horrela, Iruñeko eta Tuterako ira-

kasleek bekaren bidez jasotzen duten zenbateko gordina bera da.

Alabaina, zehaztu behar da, zenbateko gordina bera bada ere, ezberdintasunak badirela bi ikastetxeen antolamenduari dagokionez. Hori dela eta, hileko soldatetan ere ezberdintasunak daude. Iruñean, esaterako, PFEZren atxikipena %5koa da, eta Tuteran berriz %2koa da, Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalaren egoitza nagusian gertatzen den moduan. Bestalde, Tuteran dirulaguntzaren urteko zenbatekoa hamaika hilerokotan ematen da -patronatuak hori onetsi zuen 2002ko uztailearen 4ko akordioaren bidez-, eta Iruñean berriz, hamabi hilerokotan. Azkenik, patronatuak 2002ko abenduaren 11n adostutakoari jarraikiz, Tuterako ikastetxe elkartuak aukera ematen die tutoreei bi irakaskuntza modalitateen artean aukeratzeko: bata aukera ematen du lau ordu bi arratsaldetan banatzeko (bi ordu arratsaldeko), eta besteak arratsalde batean hiru ordu egiteko aukera. Bigarren modalitate hori aukeratzeko irakasleak Erriberako hiriburutik kanpo bizi dira, eta Iruñetik edo Zaragozatik joaten dira. Horrela, ikastetxe elkartuarekiko duten fideltasuna bermatzen dute, eta hori oso alderdi interesgarria da irakaskuntzaren kalitateari eta, bereziki, zentro osoari dagokionez. Bestalde, bi lanaldien modalitatea hobeto egokitzen da Tuteran bizi den irakaslegoaren beharretara.

Bi modalitate horiei esker, dagoeneko aurreratu denez, klaustroan oreka dago, ikasleen eskaera asetzen da eta zentroaren kudeaketa optimizatzen da, ikasketa ereduaren eraginkortasuna areagotzen laguntzen dutelako.

6. galderaren erantzuna

Tutore bati esleitutako irakaskuntza-eginkizunak tutore horri esleitutako alorraren arabera dira. Izan ere, irakaskuntza-eginkizunak alorren arabera zerbait alda daitezke, eta egoitza nagusiarri dagokio irakaskuntza-eginkizun horiek esleitzea, ez ikastetxe elkartuei.

Era berean, ezberdindu egin behar dira taldeko tutoretza –ikasgelan egiten dena–, eta banakako tutoretza –tutoreak banan-banan hartzen ditu ikastetxera joandako irakasleak–.

Bestalde, Tuterako Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalaren ikastetxe elkartua sortzean eta irakasle-tutorea izateko lehenengo lanpostuak merezimendu lehiaketa publikora ateratzean, ikastetxe elkartuko patronatuak erabaki zuen lanpostuek zentroan bertan guztira lau ordu egotea eskatzen zutela. Ikasgai arautuen (horiek ez dute gutxieneko ikasle-kopurua betetzen) urteko irakaskuntza-eginkizunak murrizteak plazan amortiza-

zioa edo orduen murriztapena dakar, eta hori saihesteko asmoz, honako neurri hau hartu zen: irakaskuntza arautua ikastaro ez-arautuak emanez edo zuzenduz osatzea. Hori da beste unibertsitate batzuetan egin izan dena, eta Tuteran tutore batzuek eskatu egin zuten (joan zen urtean hainbat tutoreekin egin zen, eta klaustroan eta Zuzendaritza Batzordean aipatu eta onartu egin zen 2007ko maiatzaren 17an; era berean, 2007ko azaroaren 15eko Patronatuan ere aipatu da). Horrela, irakaskuntza arautuaren eginkizunak ez-arautuarenekin orekatzen dira.

Aipatu behar da Tuterako UNEDen ikastetxe elkartuan kalitatearen koordinatzaile bat dagoela. Horrek lau irakaskuntza orduetatik hiru, kalitate plana ezartzeko erabiltzen ditu. Plan hori erreferentzia bat da Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalean, estatu mailan, eta horren adierazgarri dira Europako Brontzezko Zigilua (EFQM) lortu izana eta +300EFQM delakoa lortzeko martxan jarritako ekintzak.

Bada argitu nahi dugun beste kasu bat, galderaren irizpidea betetzen ez badu ere: ikastetxe elkartuko zuzendariarena. Aurten, esaterako, ikasturte honen hasieran bi irakasgai esleitu zitzaizkion: "psikofarmakologia" eta "garapenaren psikologia" (T4 tutoreei bezala. Horietariko batzuk Zuzenbide Sailekoak dira). Aurten dagoeneko ikastaroak antolatu eta zuzendu ditu ("Educación para la Salud" eta "Personas y Necesidades, conocer para ayudar" izeneko ikastaroak) eta beste batzuk egiteke daude ("Iniciación a la terapia breve").

Nolanahi ere, Patronatuak 1999ko martxoaren 18an egindako bileran honakoa onartu zuen: psikologian tutoretza lanak egiteko bi plaza betetzea, zuzendari eta idazkariari (gaur egun kalitatearen koordinatzailea) zegokion zeregina betetzeko. Geroago, orain ikastetxeko kalitatearen koordinatzailea den Angel Minondo Urzainqui jaunak idazkari kargua utzi zuenean, Patronatuaren erabakia izan zen ikastetxeko Kalitate Planarekin jarraituko zuela. Patronatuak hori guztia berretsi zuen 2006ko azaroaren 28ko saioan.

7. galderaren erantzuna

Tuterako Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalaren ikastetxe elkartuko zuzendaria bateraezintasun-egoeran dago, Patronatuak 2001eko azaroaren 30ean onartu zuenez: zuzendari kar-

guari Nafarroako Foru Komunitateko funtzionarioen bateraezintasun araubidea ezarriko zaio, baina ez du eskusibotasunik eskatzen; beraz, ikastetxea zuzentzearekin bateragarriak diren bestelako lan pribatuak egin ditzake.

Ikastetxeko zuzendariaren soldatari dagokionez, eta 1999ko urriaren 1ean izenpetutako kontratuan ezarritakoarekin bat, urteko ordainsari gordina 6.811.236 pezetakoa da –kontzeptu guztiak barne eta zentroko irakasle-tutore karguari dagokion ordainsaria salbu—. Kantitate hori urtero eguneratuz joan da KPlaren arabera eta, unean-unean, patronatuak hartutako erabakien arabera. Horren adibide dugu 2001eko azaroaren 30ean egindako bileran onartutakoa: aurkeztutako dokumentuak kontuan hartuz, Osasunbidetik etorritako zuzendariaren antzintasuna aintzat hartzen da. Ordainketa ezarriko da xede horretarako egindako taula ofizialtan, eta ikastetxeko aurrekontuan sartuko da.

Azkenik, Tuterako UNEDen ikastetxe elkartuko zuzendarien izendapenari dagokionez, ezarritako epeen barnean egin da, ondoko sekuentzia kronologikoak adierazten duenez:

Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalaren errektoreak 1998ko azaroaren 17an emandako ebazpenaren bidez Tuterako ikastetxe elkartuko jarduneko zuzendaria izendatu zen 1998-1999 ikasturterako.

Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalaren errektoreak 1999ko urriaren 1ean emandako ebazpenaren bidez Tuterako UNEDen ikastetxe elkartuko zuzendaria izendatu zen, eta agintaldiaren amaiera 2002ko irailaren 30ean ezarri zen.

Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalaren errektoreak 2002ko abenduaren 10ean emandako ebazpenaren bidez Tuterako UNEDen ikastetxe elkartuko zuzendaria izendatu zen, eta agintaldiaren amaiera 2006ko irailaren 30ean ezarri zen.

Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalaren errektoreak 2006ko abenduaren 21ean emandako ebazpenaren bidez Tuterako UNEDen ikastetxe elkartuko zuzendaria izendatu zen, eta agintaldiaren amaiera 2010eko irailaren 30ean ezarri zen.

Iruñean, 2007ko abenduaren 17an

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

Galdera, hezkuntza-sistema publikoan 50 urtez goiti dituzten irakasle kontratatuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

María Luisa Mangado Cortes andreak galdera egin du hezkuntza-sistema publikoan 50 urtez goiti dituzten irakasle kontratatuei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko abenduaren 17ko 40. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko abenduaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Galdera:

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari María Luisa Mangado Cortesek ondoko galdera aurkezten dio Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako hezkuntza-sistema publikoan kontratatuta dauden 50 urtez goitiko adineko irakasleak, adin-tarteen (50-55 urte, 55-60 urte, 60-65 urte) eta sexuen arabera zehaztuak.

Erantzuna:

Horra eskatutako informazioa jasotzen duen taula.

Iruñean, 2007ko abenduaren 14an

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

ADIN-TARTEA	SEXUA	
	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK
50-55	31	63
55-60	25	29
60-65	13	21
	69	113

Galdera, Nafarroako Erriberako osasun etxe bateko fakultatibo batek pediatriako adineko gaixoak artatzeari zenbaitetan uko egin izateari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

María Chivite Navascués andreak galdera egin du Nafarroako Erriberako osasun etxe bateko fakultatibo batek pediatriako adineko gaixoak artatzeari zenbaitetan uko egin izateari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko azaroaren 20ko 30. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Chivite Navascués andreak galdera egin du adin pediatrikoko gaixoak artatzeari uko egin zion sendagile bati buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

1.- Kontseilari honek ez du gertakari horren berririk.

2.- Medikuei bakar batek ere ezin dio uko egin larrialdietako osasun laguntza behar duen gaixo bat artatzeari, gaixoaren adina gorabehera. Osa-

sunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ez du jakin sendagile batek uko egin dionik larrialdietako osasun laguntza behar zuen gaixo bat artatzeari.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentu-

ko Erregelamenduaren 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2007ko abenduaren 14an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, Mendabiako industrialdearen energia hornidurari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

María Chivite Navascués andreak galdera egin du Mendabiako industrialdearen energia hornidurari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko azaroaren 13ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Chivite Navascués andreak galdera egin du Mendabiako industrialdeari buruz. Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Planteatutako gaia energia elektrikoaren banaketarekin zerikusia duen egoera jakin bati dago-kio. Nafarroan, Iberdrola enpresa da ia Komunitate osoan eta aztergai dugun kasu honetan energia elektrikoaren banatzeko eskumena duena.

Nafarroako Gobernuak Mendabiako industrialdeko beharrezkoen elektrikoak ezagutzen ditu eta azken urteotan urrats ezberdinak egin ditu egoera horri irtenbidea emateko asmoz, betiere urrats horiek herriko udalarekin adostuz. Irtenbidea honakoa izan da: industrialde hori Errioxako sare elektrikoarekin lotzea. Lotura horrek administrazio prozedura handitu eta gehiago korapilatuko luke, espedienteak bi autonomia-erkidegoei eraginen liekeelako.

Mendabiako industrialdea energia elektrikoaz behar bezala hornitzeko, 66/13,2 kV azpiestazio berria eraiki behar da, STR Mendabia izenekoa, hasieran 10 MVA-ko potentzia izanen duena.

Errioxako sare elektrikoarekin lotzeko erabakia hartu baino lehen, balizko konponbideak aztertu ziren Foru Komunitatean. Alabaina, industrialde horretatik hurbilen dagoen linea elektrikoak –66 KV-koa da eta Viana eta Lodosako azpiestazioak lotzen ditu– ezin ditu bere beharrak ase, Iberdrolan banaketaz arduratzen den kudeatzaileak jakinarazi duenez.

Mendabiako industrialdearen eskaria asetze aldera, dagoeneko adierazi denez, beharrezkoa da 66 Kv-ko linea elektrikoaren eraikitzea, ST El Sequero (Errioxa)-Los Arcos izenekoa. Horrela, 800 metro inguruko adarkatzea egin ahal izanen da eta Mendabiako azpiestazioraino helduko da. Gainera, beharrezkoa izanen da ST El Sequeroko 75 MVA-ko transformadoreetako baten ordean 125 MVA-ko bat jartzea.

Sequero-Los Arcos linea eraikitzea jasota dago Nafarroako Gobernuak eta Iberdrolak egindako hitzarmenetan. Linea elektriko berriaren hasierako tartea bi probintziaren artean dagoenez, Industria eta Energia Ministerioa arduratuko da administrazio izapidetzea egiteaz. Entitate horri dagokio aipaturiko proiektuari buruzko aurreikuspenak ezartzea.

Iruñean, 2007ko abenduaren 11n

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria: José María Roig

Galdera, NA-170 errepidea eraberritzeko lanak zirkulazioa moztu gabe egiteko aukerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du NA-170 errepidea eraberritzeko lanak zirkulazioa moztu gabe egiteko aukerari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko abenduaren 12ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko abenduaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du NA-170 errepidea eraberritzeko lanak direla-eta errepide horretan izanen diren mozketei buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Galdera

Leitza eta Doneztebe arteko NA-170 errepidea erabat moztuta izanen da aste honetan, astelehenetik ostiralera, goizeko bederatzietatik eguerdiko ordu bata bitarte, errepide hori eraberritzen ari direla-eta.

Kontuan hartuz zer aurrerapen teknologiko ditugun eskura gure erkidegoan XXI. mende honetan, foru parlamentari honek hau jakin nahi du:

Nafarroako Gobernuaren iritziz, ba al dago obra horiek egiterik NA-170 errepidea egunean gutxienez ere lau orduz erabat moztu gabe eta horren inolako ordezkorik gabe?

Erantzuna

Eraberritze lanak une honetan geldirik daude neguko kanpaina dela eta. Behin hori amaituta, berriro ekinen zaie lanei.

Hain zuzen ere, aurrerapen teknologikoak aintzat hartzen ditugulako, areka zanpagarria hormigoiez zabaltzeko lanak enkofratu lerrakorreko makina baten bidez eginen dira. Enkofratu hori derrigorrez albo batean kokatu behar da; hortaz, makinak eta hori hormigoiez hornitzen duen hormigoi-kamioiak galtzada ia osorik okupatuko dute. Hori dela eta, ezinezkoa da aldi berean trafikoari pasatzen uztea, baldin eta gure langileen eta trafikoaren segurtasuna bermatu nahi badugu.

Errepidea erabat moztearen ondorioz sortutako arazoak leuntzeko, errendimenduak murriztu behar izan ditugu, lanak goizeko ordutegian bakarrik eginez, bederatzietatik ordu bata bitarte.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 192.1. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2007ko abenduaren 18an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, jakiteko zer lurzoru eskaera ari den kudeatzen Nafarroako Gobernua merkataritzarako.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Samuel Caro Sádaba jaunak galdera egin du jakiteko zer lurzoru eskaera ari den kudeatzen Nafarroako Gobernua merkataritzarako.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko abenduaren 4ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko abenduaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Samuel Caro Sádaba jaunak galdera egin du jakiteko zer lurzoru eskaera ari den kudeatzen Nafarroako Gober-

nua merkataritzarako. Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Merkataritza Zerbitzua uneotan ez da merkataritzarako lurzoru eskaerarik kudeatzen ari .

Nasuinsa eta Sodena sozietate publikoei dago kienez, biak egon dira harremanetan azken hila-beteotan Decathlon eta Ikea enpresekin. Publikoki adierazi denez, izan ere Nafarroako Gobernuak kontratu horien berri eman baitu, bi multinazionalen interesa azaldu dute Nafarroan kokatzeko; zehazki, Iruñerrian.

Aurrez ikusita dago bi enpresak epe ertainera ezartzea, baina ez 2010 edo 2011 baino lehen. Beraz, oraindik ez da zehaztu non kokatuko diren eta ez da hasi dagokion administrazio izapidetzea.

Iruñean, 2007ko abenduaren 20an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria: José María Roig

Galdera, jakiteko Iruñerriko merkataritza guneak garatzeko zer aurreikuspen dagoen.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Samuel Caro Sádaba jaunak galdera egin du jakiteko Iruñerriko merkataritza guneak garatzeko zer aurreikuspen dagoen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko abenduaren 4ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko abenduaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Samuel Caro Sádaba jaunak galdera egin du merkataritza-parkeen garapenari buruz. Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Nafarroan merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legeak honela definitzen du merkataritza-parkea bere 15. artikuluan: "Merkataritza-parkea da merkataritza-gunearen ezaugarriak dituen saltokia; gainera, aisialdiko zerbitzu eta jardura multzo bat eskaintzen du, hala nola, zinemak, josteta aretoak, tabernak, jantokiak, edo beste mota bateko zerbitzuak, konparazio batera turismoarekin, kulturarekin eta abarrekin zerikusia dutenak."

Era berean, lege horrek merkataritza-gunea definitzen du bere 14. artikuluan: "Merkataritza-gunea da eraikin edo esparru beraren barrenean dauden salmenta-puntu edo zerbitzuen multzoak osatzen duen saltoki kolektiboa, non enpresa-jarduerak beregain egiten diren, baldin eta lokal guztiak batera proiektatuak badira eta zenbait elementu komunean erabiltzen badituzte."

Ildo horretatik, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentua ez da merkataritza-parkerik

sustatzen ari Iruñerrian. Alabaina, adierazi behar da horrelako ekimenak udal esparruak edo sustatzaile pribatuek abiarazten dituztela.

Uneotan, Eroski-Iruña merkataritza-gunea handitzeko espedientearen izapideak oso aurreratuta daude. Nafarroako Txikizkako Merkataritzako Kontseilu Aholku-emaileak proiektu horren aldeko txostena eman zuen bere azken saioan.

Proiektu horretarako aurrez ikusitako azalera komertziala txikiagotu egin behar izan da, egokitu ahal izateko Iruñerrian ekipamendu pertsonalerako ondasunentzat baimendutako gehieneko neurriei –neurri horiek Nafarroako Saltoki Handien Lurralde Ereduan daude jasoak–. Handitze lanek ez dute eraginik izanen hipermerkatuan. Proiektu horrek, azalera komertzialaz gain, biltzen ditu jate-txeak eta aisiarekin, kulturarekin eta osasunarekin lotutako zerbitzuak (zinemak, bolatokia, haur-parkea, spa...). Gune honen sustatzaileek 18 hilabete-

ko epean burutu nahi dute proiektua, obra-lizentzia eskuratzen dutenetik hasita.

“Desarrollo Comercial Urbano de Ripagaina” (DECURISA) sozietateak espediente bat aurkeztu zuen Ripagainan saltoki handi bat egiteko. Uneotan ditugun datuekin, eta Nafarroako Saltoki Handien Lurralde Ereduaren irizpideei jarraikiz, ezin da proiektu hori baimendu.

Nolanahi ere, etorkizunean izanen duen garrantzia dela-eta, gogoratu behar da halabeharrez desagertu beharko direla merkataritza-lizentziak emateko irizpide ekonomiko horiek (tarte komertziala), Europar Batasuneko zerbitzuei buruzko zuzentarauaren transposizioarekin batera -2009ko amaieran sartuko da indarrean-.

Iruñean, 2007ko abenduaren 20an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig

Galdera, Nafarroako Gobernuak, betiko merkataritza eta saltoki handi berrien arteko oreka ahalbidetzeko, defendatzen duen merkataritza ereduari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Samuel Caro Sádaba jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuak, betiko merkataritza eta saltoki handi berrien arteko oreka ahalbidetzeko, defendatzen duen merkataritza ereduari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko abenduaren 4ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko abenduaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Samuel Caro Sádaba jaunak galdera egin du merkataritza ereduari buruz, eta idatzizko erantzuna eskatu. Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak azken urteotan merkataritzaren arloan aplikatu duen politikaren abia-

puntua hau da: merkataritza-formatu ezberdinak bateragarriak izatea. Nafarroako Gobernuarentzat posiblea eta beharrezkoa da sektore horretan eskaintza zabala izatea eta aldi berean saltoki txiki, ertain eta handiak bateragarriak izatea.

Ildo horretatik, administrazioak uste du Foru Komunitateko merkataritza txikiak etorkizunik baduela, eta horregatik lanean dihardu txikizkako merkataritzak bere jarduera gara dezan gainerako formatuen baldintza beretan. 2000. urtetik, Nafarroako Gobernuak 8 milioi euro baino gehiagoko laguntzak eman dizkio merkataritza txikiari, ondo-ko kontzeptuetan: inbertsioak, elkartegintza, lankidetzak, prestakuntza, eraberritze proiektuak eta kalitatea.

Nafarroako Gobernuak bere merkataritza politika garatzen du Nafarroako Merkatarien Federazioarekin batera koordinatuta. Bien arteko harremana emankorra da eta etorkizunean areagotzea espero dugu.

Lankidetzak horren emaitza izan zen Txikizkako Merkataritza Modernizatzeako I. Plana egitea eta aplikatzea. Plan horren xedea da merkataritza txikiaren lehiakortasuna areagotzea ondoko jarduera

hauen bidez: inbertsioetarako dirulaguntzak handitu, merkataritzako elkartegintza sustatu, eta enpresen arteko lankidetzak, prestakuntza eta hiriaren erdialdean merkataritza eraberritzeko ekintzak sustatu.

Nafarroako Gobernuak dagoeneko proposamena egin dio Nafarroako Merkatarien Federazioari bigarren modernizazio plan bat onartzeko. Plan hori egiteko bilerak dagoeneko hasi dira.

Nafarroako Gobernuak merkataritza txikiarekiko hartu duen konpromisoa agerian geratu da Nafarroako 2008ko aurrekontu orokorren proposamenean. Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren proposamena da laguntzak %55 handitzea, industri sektorean inbertsio eta enplegu gaietan ematen diren laguntzekin berdintzeko.

Nafarroako Gobernuak legegintzaldi honetan merkataritzaren alorrean egindako jarduera nagusienetarikoa izan da Foru Komunitateko merkataritza txikiaren lehiakortasuna handitzea. Ildo horretatik hartu den azken neurria honakoa izan da: saltokien eta erosketen zentralen poltsa bat eratztea.

Ezin dugu ahaztu 2009ko abenduan indarrean sartuko dela Europar Batasunaren zerbitzuen zuzentzarua. Bruselako araudi berri horrek eragina izanen du egun merkataritza antolamendua arautzen duen markoan. Bere zehaztapen batzuk aipatzearen:

– Debekatuta dago baimenak edo lizentziak “proposamen ekonomikoak” deiturikoen mende egotea, edo merkaturuan eskaria dagoela frogatu behar izatea horiek eskuratzeko. Egundik Nafarroan indarrean dagoen Saltoki Handien Lurralde Ereduak irizpide hori jasotzen du.

– Lizentziak eskuratzeko lehiatzen direnek ezin izanen dute esku hartu baimena emateko proze-

suetan -organo aholku-emaileen barnean egonik ere-. Beraz, egungo Nafarroako Txikizkako Merkataritzako Kontseilu Aholku-emailea aldatu beharko da.

– Beharrezkoa da baimena emateko prozedurak sinplifikatzea eta argitzea.

Beraz, ezarritako hiru urteko epean, merkataritzako jarduerara arautzeko eredu berria ezarri beharko da. Hori lurralde-antolamenduari buruzko kontsiderazio batzuetan oinarritu ahal izanen da –kontsiderazio horiek Zerbitzuen Zuzentzarauak baimentzen ditu–, baina ez ekonomiari buruzkoetan (tarte komertzialak, formatu txikiak handien aurrean babestea...).

Hori horrela, Nafarroako Gobernuak datozen urteotan indartu egingen ditu ondoko alderdi hauek sustatzen dituzten planak: modernizazioa, kalitatea eta teknologia berrien aplikazioa. Horrela, Nafarroa baldintza onenetan egonen da merkaturuan lehiatu ahal izateko eta kontsumitzaileen eskariak asetzeko, behin Zerbitzuen Zuzentzarua aplikatzen denean.

Nafarroan sektore horri buruz egindako azken txostenak –zehazki 2006ko saltokien errolda, Nafarroako Estatistika Institutuak egina– merkataritza txikiak 2002tik izandako garapena adierazten du:

– Saltokien kopurua 113 handitu da: 6.186 saltokitik 6.288ra.

– Langileen kopurua handitu da: 2002an 16.270 langile zeuden erroldatuta eta kopurua 20.300era igo da; hots, 4.030 langile gehiago daude (%25).

Iruñean, 2007ko abenduaren 20an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

Galdera, Osasun Departamentuko “Bideko Ama Birjina ospitalea eraberritzeko lanak” izeneko kontusailari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

María Chivite Navascués andreak galdera egin du Osasun Departamentuko “Bideko Ama Birjina ospitalea eraberritzeko lanak” izeneko kontusailari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko abenduaren 4ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko abenduaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

543000-52240-6020-312802 kontusaila, Eraberritze lanak:

Hasierako aurrekontua: 3.672.895 euro.

Aurrekontu bateratua: 3.379.894 euro.

Egin diren edo egiten ari diren jarduerak:

	Baimendua	Betebeharrekoa
Fatxadak eta larrialdietarako eskailerak eraberritzea	1.133.382	707.984
Endoskopia Unitate berria	959.508	740.704
Hoztorreak ordezkatzeara	675.225	565.407
Kirurgia eremua eraberritzeko aurreproiektua	51.620	51.620
Ama-haurrentzako larrialdiak eraberritzea	11.600	11.600
GUZTIRA.....	2.831.335	2.077.315

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2007ko abenduaren 24an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, jangela zerbitzua dela-eta zortzi haurtzaindegitako 83 haur intoxikatu izanari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

María Luisa Mangado Cortes andreak galdera egin du jangela zerbitzua dela-eta zortzi haurtzaindegitako 83 haur intoxikatu izanari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko abenduaren 4ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko abenduaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Luisa Mangado Cortes andreak galdera egin du jangela zerbitzua dela-eta, zortzi haurtzaindegitako 83 haur intoxikatu izanari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

1.- Osasun Publikoaren Institutuak kasuen azterketa klinikoa eta epidemiologikoa egin du, intoxikazioa ahalbidetu zuten elikagaien segurtasun baldintzak ikuskatu ditu, eta ustez zerikusia izan zuten elikagaien analisiak egin ditu. Ondorioak eztabaidaezinak dira eta zehazten dute galderan aipaturiko intoxikazioak ondoko kausa hauek izan zituela:

– Kaltetuek jandako hegaluze gisatua tomatearekin.

– Jakia prestatzeko erabilitako hegaluzea edo jakia bera prestatu ostean histaminarekin kutsatu zen. (Histamina agertzen da baldin eta arraina, prestatu aurretik edo ostean, ez bada baldintza egokietan hoztuta edo izoztuta gordetzen).

2.- Gure Komunitateko catering enpresek beharrezkoa dute Osasun Departamentuko baimena eskuratzea eta erregistratuak egotea. Hala xedatzen du urriaren 27ko 311/1997 Foru Dekretuak, Nafarroako Foru Komunitatean elikadura arloko jarduera, industria edo establezimenduen funtzionamendurako osasun baimena erregulatzen duenak. Hori Elikagaien Osasun Erregistro Orokorra arautzen duen azaroaren 29ko 1712/1991 Errege Dekretuan dago jasoa.

Osasun baimena emateko prozeduran zehaztu egiten dira catering enpresek elikagaien segurtasun

kontrolerako ezarri beharreko bermeak. Prozedura horretan, Osasun Publikoaren Institutuaren ikuskaritza-zerbitzuek egiaztatuko dute baimen eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentazioa, enpresaren instalazioak bisitatuko dituzte eta honakoa egiaztatuko dute:

– Beharrezkoak diren lokalak, instalazioak eta ekipoa dituztela.

– Higieneari buruzko araudian arrisku eta kontrol gune erabakigarrien azterketari (APPCC) buruz ezarritako prozedurak betetzea.

– Higiene arloko baldintzak ezartzea (lokalen, instalazioen eta ekipoen mantentze lanak, fabrikazio eta manipulazio jardunbide egokiak, uraren eta hornitzaileen kalitate-kontrolak, garbiketa eta desinfekzio planak, izurriak kontrolatzeko planak, traxibilitate planak eta langileak prestatzeko planak).

– Autokontrolerako eta emaitzak gordetzeko plana edo programa izatea. Horrek tenperatura-eta denbora-kontrolak eta APPCC programari jarraikiz egin beharreko azterketen emaitzak jasoko ditu.

Funtzionamendurako osasun baimena eskuratu ondoren, enpresak garatuko ditu aurretik deskribatutako programak, eta osasun publikoaren ikuskaritza-zerbitzuek aldizka eginen dizkioten ikuskapenen mende egonen da –ikuskapen horiek elikadura arloko jardueren kontrol ofizialaren egin-kizunak betetzeko eginen dira–.

3.- Higieneari buruzko Europako araudiek elikadura arloko enpresetako langileei honako ardurak esleitzen dizkiete: ekoizten dituzten elikagaiak beharrezkoak diren segurtasun baldintzak betetzea eta baldintza horiek betetzen direla ziurtatzea.

Araudi horien arabera, agintari eskudunek ziurtatu beharko dute elikadura arloko enpresetako langileek elikadurari buruzko araudia betetzen dutela uneoro: elikagaien ekoizpen, eraldaketa eta banaketa fase guztietan.

4.- Osasun Publikoaren Institutuak ikuskapena egin zituen aipaturiko enpresa horretan ondoko egunetan:

– 2006ko uztailaren 20an. Funtzionamendurako osasun baimena eman aurreko ikuskapena.

- 2006ko abenduaren 18an. Hasierako ikuskapena. Ohiko ikuskapena.
 - 2007ko urtarrilaren 10ean. Ohiko ikuskapena.
 - 2007ko apirilaren 11n. Elikagaien lagin ofiziala hartu zen, eta emaitzak bat zetozen elikagaien segurtasun irizpideekin.
 - 2007ko uztailaren 16an. Ohiko ikuskapena.
 - 2007ko azaroaren 26an. Elikagaien lagin ofiziala hartu zen. Intoxikazioaren ostean ikuskapena egin zen, elikagaien segurtasun baldintzak egiaztatzeko eta jarraipena egiteko.
 - 2007ko azaroaren 28an. Intoxikazioaren ostean ikuskapena egin zen, elikagaien segurtasun baldintzak egiaztatzeko eta jarraipena egiteko.
 - 2007ko azaroaren 30ean. Intoxikazioaren ostean ikuskapena egin zen, elikagaien segurtasun baldintzak egiaztatzeko eta jarraipena egiteko.
- Egindako ikuskapenetatik ondokoa ondoriozta daiteke:
- Langileek etengabeko prestakuntza jasotzen dute eta janari-erabiltzaile karneta dute.
 - Aldizka desintsektazio eta desratizazio tratamenduak egiten dira.
 - Hondakinak behar bezala kudeatzen dira.
 - Lokalak eta ekipoak higienizatzeko programa badute eta aplikatzen dute.
 - Laborategian analisiak egiten dituzte lehengaien eta ekoiztutako elikagaien autokontrolerako.
- Elaborazio prozesuen eta APPCC programaren memoria teknikoa dute.
 - Lehengaien eta ekoiztutako produktuen trazabilitatearen datuak gordetzen dituzte.
 - Prestatutako janariak hozkailu-ibilgailuaren bidez banatzen dira.
 - 2007ko azaroan ikuskapenak egin ziren eta ikuskapen zerbitzuak eskatu zuen APPCC programa eguneratzeko eta egokitzeko, izan ere aldaketa esanguratsuak izan dira prestatutako plateretan eta prestatzeko prozeduretan.
 - Elikagaiak prestatzeko eta gordetzeko tenperaturei dagozkien datuak erregistratzen dira.
- Abenduaren 29ko 3484/2000 Errege Dekretuaren bidez, aldeztuak prestatutako janariak egiteko, banatzeko eta merkaturatzeko higijene arauak ezarri ziren. Errege Dekretu horrek ez du zehazten zein den gehieneko epea plater prestatuak izozkailuan edo hozkailuan gordetzeko. Alabaina, arau horri jarraikiz, behin elikagaiak desizoztu ostean, berehala prestatuko dira edo hozkailuan gordeko dira aldi jakin baterako eta tenperatura egokian -horiek ez hondatzeko eta osasunarentzat arriskutsuak diren mikroorganismo patogenoak edo toxinak ez sortzeko moduan-. Intoxikazioaren agerraldiak agerian uzten du elikagaiaren segurtasuna bermatzen duen gehieneko epea gairatu zela.
- Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoa betetzeko.
- Iruñean, 2007ko abenduaren 24an
- Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, jakiteko zer egiten duen Nafarroako Gobernuak Osasunbidean zahar geratu den baina oraindik erabilgarria den material zein tresneriarekin, berriak erosita ordezkatzzen dituenean.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Paula Kasares Corrales andreak galdera egin du jakiteko zer egiten duen Nafarroako Gobernuak Osasunbidean zahar geratu den baina oraindik erabilgarria den material zein tresneriarekin, berriak erosita ordezkatzzen dituenean.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko abenduaren 4ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko abenduaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Paula Kasares Corrales andreak galdera egin du jakiteko zer egiten duen Nafarroako Gobernuak Osasunbidean zahar geratu den baina oraindik erabilgarria den material zein tresneriarekin, berriak erosita ordezkatzzen dituenean. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Biltegian gordetzen da eta ongintzako entitateen eskura jartzen da, erabil dezaten.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2007ko abenduaren 24an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, Osasun Departamentuko aurrekontuetan itxaron zerrendak murrizteko aurreikusten diren kontusailei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

María Chivite Navascués andreak galdera egin du Osasun Departamentuko aurrekontuetan itxaron zerrendak murrizteko aurreikusten diren kontusailei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko abenduaren 4ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko abenduaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Chivite

Navascués andreak galdera egin du Osasun Departamentuko aurrekontuetan itxaron zerrendak murrizteko aurreikusten diren kontusailei buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Itxaron zerrendak murrizteko asmoz, jarduerak areagotu dira eta horrek eragindako gastuak, gaur arte, 11.360.875 eurokoak izan dira. Hona azalpena:

Langileen kontratazioa	2.385.731 euro
Langileen lanaldiaren luzapena	2.088.871 euro
Funtzionamendu-gastuak areagotzea	3.188.693 euro
Itunen gastuak areagotzea	3.697.580 euro

Itxaron zerrendak murrizteko kontusail berriazkoek (ondoko hauei buruzkoak: langileen kontratazioa, funtzionamendu-gastuak eta itunak) honako aurrekontu-egoera hau dute:

Zentroa	Kontzeptua	Hasierakoa	Bateratua	Baimendua	Ordaindutakoa
Anbulatorioak	Lan kontratupekoen soldatak	245.000	758.268	666.130	666.130
	Zenbait gastu	186.000	0	-	-

Askotariko gastu horiek transferitu eta laborategiko produktuei dagokien kontusailean gastatu dira, izan ere jarduerak areagotzearen ondorioz gastuak ere areagotu baitira.

Itunak	San Miguel klinika	300.000	1.274.100	1.274.100	1.097.580
	Osasun-laguntza	2.600.000	0	-	-

“Osasun-laguntza” izeneko kontusailari dagozkion gastuak transferitu eta gastatu dira “Nafarroako Klinika Unibertsitarioaren osasun-laguntza” ize-

neko kontusailean. Izan ere, zentro horretara bidali ziren gaixoak itxaron zerrendak murrizteko, eta horren ondorioz gastuak areagotu ziren.

Nafarroako Ospitalea	Lan kontratupekoen soldatak	1.900.000	501.862	391.181	391.181
	Zenbait gastu	1.942.000	18.567	0	0

Askotariko gastu horiek hainbat kontusailatan transferitu eta ordaindu dira. Horien artean ondoko hauek nabarmentzen dira: Protiesiei dagozkienak

(300.000 euro) eta Osasun-materialari dagozkionak (800.000 euro). Gastu horiek jarduera areagotzearen ondorio dira.

Bideko Ama Birjina Ospitalea	Lan kontratupekoen soldatak	1.500.000	769.427	437.944	437.944
	Zenbait gastu	181.000	0	-	-

Askotariko gastu horiek jarduera areagotzearen ondorio dira eta hainbat kontusailatan transferitu eta ordaindu dira.

Ubarmin Klinika	Lan kontratupekoen soldatak	192.000	438.106	381.978	381.978
	Zenbait gastu	313.000	0	-	-

Askotariko gastu horiek hainbat kontzeptutan transferitu eta ordaindu dira. Horien artean ondoko hauek nabarmentzen dira: Protiesiei dagozkienak

(103.000 euro) eta Osasun-materialari dagozkionak (153.000 euro). Gastu horiek jarduera areagotzearen ondorio dira.

Tuterako Ospitalea	Lan kontratupekoen soldatak	450.000	450.441	447.974	447.974
	Zenbait gastu	450.000	14.740	0	-

Askotariko gastu horiek hainbat kontzeptutan transferitu eta ordaindu dira. Horien artean ondoko hauek nabarmentzen dira: Protiesiei dagozkienak (117.000 euro). Gastu horiek jarduera areagotzearen ondorio dira.

Lizarrako Ospitalea	Lan kontratupekoen soldatak	124.000	124.121	60.524	60.524
	Zenbait gastu	150.000	0	-	-

Askotariko gastu horiek hainbat kontzeptutan transferitu eta ordaindu dira. Horien artean ondoko hauek nabarmentzen dira: Protiesiei dagozkienak (80.000 euro), Osasun-materialari dagozkienak (18.000 euro) eta Laborategiko Produktuei dagozkienak (15.000 euro). Gastu horiek jarduera areagotzearen ondorio dira.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2007ko abenduaren 24an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, Osasun Departamentuko “Zurgatzaileak eta beste osasun-produktu batzuk” izeneko kontusailari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

María Chivite Navascués andreak galdera egin du Osasun Departamentuko “Zurgatzaileak eta beste osasun-produktu batzuk” izeneko kontusailari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko abenduaren 4ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko abenduaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Chivite Navascués andreak galdera egin du Osasun Departamentuko “Zurgatzaileak eta beste osasun-produktu batzuk” izeneko kontusailari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

1.- Aipatutako kontusaila, hasiera batean, 7.081.971 eurokoa zen, eta 7.781.971 eurora handitu da. Hori da gaur egun dagoen zenbateko bateratua.

2.- Baimendutako zenbatekoa 6.584.357 eurokoa da, eta nahitaezko zenbatekoa 5.454.051 eurokoa da. Hona xehetasunak:

	Zenbatekoa	Hila
Gaixo anbulatorioak pixoihalez hornitzea	2.625.085	Iraila
Farmazi bulegoetako osasun produktuak	1.746.395	Urria
Zahar-etxeetako gaixoentzako hornidura	827.817	Iraila
Zahar-etxeetako osasun produktuak	254.754	Urria
Guztira.....	5.454.051	

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2007ko abenduaren 24an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, Osasun Departamentuko “Nafarroako Unibertsitatea enpresa lankidearen osasun-laguntza” izeneko kontusailari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

María Chivite Navascués andreak galdera egin du Osasun Departamentuko “Nafarroako Unibertsitatea enpresa lankidearen osasun-laguntza” izeneko kontusailari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko abenduaren 4ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko abenduaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Chivite Navascués andreak galdera egin du Osasun Departamentuko “Nafarroako Unibertsitatea enpresa lankidearen osasun-laguntza” izeneko kontusailari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Aipatutako kontusailaren hasierako aurrekontua 8.000.000 eurokoa zen. Kopuru hori murriztu

joan da hainbat transferentziaren bidez –horien zenbateko osoa 4.360.000 eurokoa da– eta beraz, gaur egun, zenbateko bateratua 3.640.000 eurokoa da.

2.- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak, urriaren 15eko 1661/2007 Ebazpenaren bidez, dirulaguntza bat eman zion Nafarroako Unibertsitateari, haren langileei eta senide onuradunei gaixotasun arruntak eta lanetik kanpoko istripuak direla-eta ematen zaien osasun laguntzaren kudeaketan laguntzeagatik –unibertsitateak borondatez eta bere kargura ematen du laguntza hori–; aipaturiko dirulaguntza horren gehieneko zenbatekoa 2.307.870 eurokoa izan zen.

Oraindik ere ez da ordainketarik egin, eta emandako dirulaguntzaren zenbateko osoa ordaintzeke dago.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2007ko abenduaren 24an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, Osasun Departamentuko “Nafarroako ospitale publikoak eraberritzeko lanak” izeneko kontusailari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

María Chivite Navascués andreak galdera egin du Osasun Departamentuko “Nafarroako ospitale publikoak eraberritzeko lanak” izeneko kontusailari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko abenduren 4ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko abenduaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Chivite Navascués andreak galdera egin du Osasun Departamentuko “Nafarroako ospitale publikoak eraberritzeko lanak” izeneko kontusailari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

2007ko azaroaren 21ean, ondoko hau da aipatutako kontusail bakoitzaren aurrekontu-egoera:

A) Nafarroako Ospitalea

542000-52230-6020-3128023 kontusaila. Eraberritze lanak.

Hasierako aurrekontua: 1.570.000 €

Aurrekontu bateratua: 3.252.711 €

Egin diren edo egiten ari diren jarduerak:

	Baimendua	Bete beharrekoa
Hemodialisi Unitate berria	1.834.085	0
Hemodialisi-uraren tresna berriak	189.968	0
Horma eraberritzea	478.531	441.195
Larrialdiak eraberritzeko proiektua	385.000	0
C pabiloia eraberritzeko eta handitzeko proiektua	81.581	81.581
A pabiloiko igogailua berritzea	28.852	28.852
	2.998.017	551.628

B). Bideko Ama Birjina Ospitalea

543000-52240-6020-312802 kontusaila. Eraberritze lanak.

Hasierako aurrekontua: 3.672.895 €

Aurrekontu bateratua: 3.379.894 €

Egin diren edo egiten ari diren jarduerak:

	Baimendua	Bete beharrekoa
Fatxada eta larrialdietarako eskailerak eraberritzea	1.133.382	707.984
Endoskopia Unitate berria	959.508	740.704
Hoztorreak ordezkatzeta	675.225	565.407
Kirurgia eremua eraberritzeko aurreproiektua	51.620	51.620
Ama-haurren larrialdiak birmoldatzeko aurreproiektua	11.600	11.600
	2.831.335	2.077.315

C) Ubarmin Klinika

544000-52250-6020-312802 kontusaila. Eraberritze lanak.

Hasierako aurrekontua: 1.092.909 €

Aurrekontu bateratua: 962.909 €

Egin diren edo egiten ari diren jarduerak:

	Baimendua	Bete beharrekoa
Hozteko gailuak ordezkatzeta	398.500	398.500
Larrialdietarako eskailera berria	205.776	197.073
Aldagelak eraberritzea	35.969	35.306
Kontsultategia eraberritzea	54.550	54.550
Bulegoak eraberritzea	15.238	15.238
Anbulantzien eremuen saneamendua	24.241	24.241
Kanpoko zoladura	12.735	12.735
Kirofanoetako fancoil-ak	43.683	43.683
Hidroterapiako gaixoen aldagelak eraberritzea	42.656	42.656
	833.348	823.952

D) Tuterako Reina Sofía Ospitalea

545000-52400-6020-312802 kontusaila. Eraberritze lanak.

Hasierako aurrekontua: 400.000 €

Aurrekontu bateratua: 499.424 €

Egin diren edo egiten ari diren jarduerak:

	Baimendua	Bete beharrekoa
Bigarren solairuko klimatizazioa	404.556	371.928
Igogailu berria paratzea	25.520	0
	430.076	371.928

E) Lizarrako García Orcoyen Ospitalea

546000-52500-6020-312802 kontusaila. Eraberritze lanak.

Hasierako aurrekontua: 250.000 €

Aurrekontu bateratua: 94.996 €

Aurrekontu baimendua: 0 €

Aurrekontu behartua: 0 €

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2007ko abenduaren 24an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, N-121-A errepideko zenbait tartetan hobekuntzak egiteko lanei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du N-121-A errepideko zenbait tartetan hobekuntzak egiteko lanei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko abenduaren 4ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko abenduaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak gal-

dera egin du N-121-A errepidea hobetzeko lanei buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Erantzuna

Parlamentu-talde honentzat lehentasunezkoa da N-121-A errepidea hobetzeko lanak proiektuko epeen barrenean egin daitezela, behar adinako kalitatez eta gaur egungo errepideko zirkulazioaren gaineko eragina ahal den orotan murriztuz. Obrak hasi zirenetik hilabete batzuk igaro direnean, beharrezko deritzogu lanei buruzko jarraipendatu errealak eskueran izateari, era horretan ebaluatu ahal izateko zein neurritan betetzen ari diren lanak, exekuzio-proiektuarekin alderatuta.

Hori dela-eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

1.- Obra-kontratuak sinatu zirenetik 2007ko maiatzeko hauteskundeetara bitartean errepide-tarteetan eginiko lanen zerrenda ematerik ba al digu Gobernu honek? Halaber, emandako ziurtagi-

rien kopiak ikusi eta lan-planarekiko balizko desbiderapenak, proiektu-aldaketak eta abar ere ezagutu nahi genituzke.

Tartea	Kontratuaren data	Zuinketa-aktaren data	Hasteko aginduaren data
Sunbilla-Etxalar	07/03/23	07/04/11	07/04/12
Etxalar-Bera	07/03/23	07/04/11	07/04/12
Bera-Endarlatsa	07/06/14	07/07/16	07/07/17

Hauteskundeak 2007ko maiatzaren 27an, igandean, egin ziren.

Lehen bi tarteetan, hasteko agindua eman zenetik eta hauteskundeetara bitartean, ondoko lanak egin ziren: prestatzeko jarduketak, eremuaren azterketa, zuinketak, etab. Baina ez zenez lan materialik egin, ez zen sinatu obra-egiaztagiririk.

Bera-Endarlatsa tartean, hauteskundeetan, ez zegoen sinatuta obra-kontratua.

2.- Gobernu honek ematerik al digu ekain, uztaile, abuztu, irail eta urrian emandako ziurtagiri guztien kopia, bai eta lanen planarekin alderatuta izandako balizko desbiderapenen, proiektu-aldaketan eta abarren berri ere?

Eskatutako ziurtagiriak erantsi ditugu.

3.- Gobernu honek helarazterik al digu eraginen zerrenda historikoa (programaturiko ez-tandean ondoriozko erre-etenak, programatu gabeko etenak, lan-planak jasandako gorabeherak eta abar),

non zehaztuko baita, gainera, eragin horiek bat ote datozen proposaturiko lan-planarekin? Horien frogagiria ere nahi genuke.

Eskatutako ziurtagiria erantsi dugu.

4.- Gobernu honek helarazterik al digu desjabetzeen zerrenda, desjabetzea egin zaion jabearen zehaztapenarekin eta desjabetze-akordioaren sinadura-egunaren aipamenarekin batera?

Eskatutako dokumentazioa erantsi dugu.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192.1. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2007ko abenduaren 20an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

(Oharra: aipatu dokumentu foru parlamentarien eskura dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

Galdera, etorkinak gizarteratzeko planari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

María Victoria Arraiza Zorzano andreak galdera egin du etorkinak gizarteratzeko planari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betetz, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko abenduaren 4ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko abenduaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Victoria Arraiza Zorzano andreak galdera egin du etorkinak gizarteratzeko planari buruz. Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

María Victoria Arraiza Zorzano andreak ondoko galdera hauek egin ditu eta idatzizko erantzuna eskatu:

1. Etorकिनak gizarteratzeko planaren ebaluaziorik egiten ari al da edo egiteko asmorik ba al da?

Etorकिनak gizarteratzeko planaren ebaluazioa jadanik abian da.

Zehazki, Gizarte Gaien eta Garapenerako Lankidetzaren zuzendari nagusiak, urriaren 2ko 369/2007 Ebazpenaren bidez, esleitu egin zion Nafarroako Unibertsitate Publikoko ALTER ikerketa taldeari aipaturiko plana ebaluatzeko laguntza kontratua.

2. Aurreraterik ba al dago emaitzak noiz eza-gutuko ditugun?

Nafarroako Foru Komunitatean etorkinak gizarteratzeko plana ebaluatzeko epea hamar hilekoa da. Beraz, 2008ko irailean emaitzak ezagutzeko aukera izanen dugu.

3. Ba al dago plan berririk egiteko asmorik?

Ebaluazioa amaituta, Nafarroako Foru Komunitatean etorkinak gizarteratzeko II. plana egiteko espedientea hasiko da. Bigarren plan hori Erakun-

deekiko Harremanetarako Departamentuak eginen du Immigraziorako bulegoaren bidez –organo horrek immigrazio arloko eskumenak hartu ditu bere gain–.

4. Etorकिनen Bulegoa al da gaur egun ardurtzen dena planaren ebaluazioaz eta plan berria prestatzeaz?

Dagoeneko adierazi denez, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuko Gizarte Gaien eta Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza Nagusia arduratu da Nafarroako Foru Komunitatean etorkinak gizarteratzeko planaren ebaluazioaz. Horretarako, Nafarroako Unibertsitate Publikoko ALTER ikerketa taldearekin lan kontratua sinatu zuen.

Immigraziorako bulegoari dagokio bigarren plana egitea.

Iruñean, 2007ko abenduaren 20an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

Galdera, Nafarroako Gobernuak Espainiako Gobernutik Menpekotasunari buruzko Legea garatzeko jaso duen diru kopuruari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Javier Monzón Romé jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuak Espainiako Gobernutik Menpekotasunari buruzko Legea garatzeko jaso duen diru kopuruari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko abenduaren 4ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko abenduaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari José Javier Monzón Romé jaunak galdera egin du Menpekotasunari buruzko Legea garatzeko jaso diren diru kopuruei buruz. Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariaren erantzuna:

José Javier Monzón Romé jaunak galdera egin du jakiteko zenbat diru jaso duten autonomia erki-degoek Espainiako Gobernutik Menpekotasunari buruzko Legea garatzeko, eta idatzizko erantzuna eskatu:

“Menpekotasunari buruzko Legea dela-eta zer diru kopuru jaso du Nafarroako Gobernuak Espainiako Gobernutik, eta gehienbat zertarako erabili du diru hori Nafarroako Foru Komunitateak? Noiz jaso zuen Nafarroako Gobernuak diru kopuru hori?”

Esan beharra dago Nafarroako Foru Komunitateak ez duela diru kopururik jaso autonomia pertsonala sustatzeko eta menpekotasun egoeran dauden pertsonen kasu egiteko abenduaren 14ko 39/2006 Legea garatzeko.

Ildo horretatik, gogoratu behar da 2007ko azaroaren 5ean honakoa xedatu zela Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren negoziazio-batzordearen akordioan –abenduaren 19ko 48/2007 legeak onartu zuen hori–: Nafarroak parte hartuko du

autonomia sustatzeko eta laguntza emateko sistema finantzatzera Estatuak bideratutako aurrekontuetan. Horretarako, dagokion murriztapena eginen zaio bere ekarpenari.

Iruñean, 2007ko abenduaren 20an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilaria: María Isabel García Malo

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak azterketarik edo baloraziorik egin duen kalkulatzeko zenbatekoa izanen litzatekeen eskualdeko edo lurraldeko garraioaren linea publikoetako autobus batzuk minusbaliotasun fisikoa duten pertsonentzat egokitzearen kostua.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Javier Monzón Romé jaunak galdera egin du jakiteko Nafarroako Gobernuak azterketarik edo baloraziorik egin duen kalkulatzeko zenbatekoa izanen litzatekeen eskualdeko edo lurraldeko garraioaren linea publikoetako autobus batzuk minusbaliotasun fisikoa duten pertsonentzat egokitzearen kostua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko abenduaren 4ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko abenduaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari José Javier Monzón Romé jaunak galdera egin du jakiteko azterlanik edo baloraziorik egin den kalkulatzeko zenbatekoa izanen litzatekeen eskualdeko edo lurraldeko garraioaren linea publikoetako autobus

batzuk minusbaliotasun fisikoa duten pertsonentzat egokitzearen kostua. Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariaren erantzuna:

José Javier Monzón Romé jaunak ondoko galdera hau egin dio kontseilariari eta idatzizko erantzuna eskatu:

“Egin al du Nafarroako Gobernuak azterlanik edo baloraziorik jakiteko zein den eskualdeko edo lurraldeko garraioaren linea publikoetako autobus batzuk minusbaliotasun fisikoa duten pertsonentzat egokitzearen kostua?”

Horri dagokionez, adierazi behar da Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Departamentuak ez duela daturik jakiteko zein izanen litzatekeen gaur egun eskualdeko edo lurraldeko garraioaren linea publikoetako autobusak egokitzearen kostua. Dena dela, bere konplexutasun teknikoa dela-eta, alor horretan espezializatutako instantziei dagokie gai horri heltzea.

Iruñean, 2007ko abenduaren 20an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilaria: María Isabel García Malo

Galdera, Zangozan gazteentzako aterpetxe bat egiteko aukerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Zangozan gazteentzako aterpetxe bat egiteko aukerari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko abenduaren 12ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko abenduaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Zangozan gazteentzako aterpetxe bat jartzeko aukerari buruz. Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariaren erantzuna:

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko Maiorga Ramírez Erro jaunak zenbait galdera egin ditu

Zangozan gazteentzako aterpetxe bat jartzeko aukerari buruz, eta idatzizko erantzuna eskatu du.

Horri dagokionez, adieraz dezakegun gauza bakarra da Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Departamentuak eta zehazki Nafarroako Gazteriaren Institutuak –arlotan eskumena duen organo autonomoa– ez duela asmorik Zangozan gazteentzako aterpetxerik jartzeko. Kontzeptu hori ez dago aurreikusita Nafarroako Gobernuak 2008ko ekitaldirako onartutako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuan.

Bestalde, azpimarratu behar da departamentu honek ez duela inongo eskaerarik jaso Zangozan gazteentzako aterpetxe bat abian jartzeko, ez eta horren ostean Gazteentzako Aterpetxeen Espainiako Sarean (REAJ) eta Gazteentzako Aterpetxeen Nazioarteko Federazioan (GANF) sartzeko ere.

Iruñean, 2007ko abenduaren 19an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilaria: María Isabel García Malo

Galdera, Zangozan zubi berri bat eraikitzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Zangozan zubi berri bat eraikitzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko abenduaren 12ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko abenduaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Zangozan zubi berri bat eraikitze-

ari buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

“2002-2009 urteetarako errepideei buruzko II. plan zuzendarian” ez da sartzen Zangozan zubi berri bat eraikitzea. Hori horrela, ez da horretarako proiekturik egiten ari, eta zubia eraikitze aurreikuspenik ez dago.

Dena dela, “2009-2016 urteetarako errepideei buruzko III. plan zuzendaria” egitean proiektu hori sartzeko aukera aztertuko da.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192.1. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2007ko abenduaren 20an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, Pirineotako autobiak Ledeatik iragatean izanen duen trazadurari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Pirineotako autobiak Ledeatik iragatean izanen duen trazadurari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko abenduaren 12ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko abenduaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Pirinioen A-21 autobiarri buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna.

Lehena: Judasen Benta-Esa tarterako aurreikusitako trazadurak ingurumen eraginaren adierazpena dauka –Ingurumeneko Idazkaritza Nagusiak onetsi zuen 2002ko abenduaren 4ko Ebazpenaren bidez (2002ko abenduaren 27ko Estatuko Aldizkari Ofiziala)–.

Azpiegituretarako Estatu Idazkaritzak azterlan informatiboa onartu zuen 2003ko otsailaren 6ko

Ebazpenaren bidez (2003ko apirilaren 8ko Estatuko Aldizkari Ofiziala).

Ingurumen eraginaren adierazpena 3. aukera deiturikoan oinarrituta egin zen (ikus erantsitako plano), baina adierazpen horrek aukera ematen du 2. aukera ere hartzeko, baldin eta lurraldea antolatzeko eskumena duen administrazioak bere eskumen esparrutik egokitzat jotzen badu.

Bigarrena: Elo-Getze 2.1. tarte eta Getze-Izko 2.2 tarte oraindik ere eraikitzen ari dira eta lan horiek egiteko epea 2008ko lehen seihilekoan amaituko da.

III. tarte, Izko-Judasen Benta, egiteko epea 2009an amaituko da.


Judasen Benta-Esa tarte “2009-2016 urteetarako errepideei buruzko III. plan zuzendarian” planifikatuko da. Plan hori 2008an egingen da.

Hirugarrena: Aragoiko Gobernuak ez du esku-menik proiektu honen garapenari dagokionez. Beraz, harekin ez da egin jarduera honi buruzko inolako urratsik.


Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192.1. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2007ko abenduaren 21ean

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado



	SECRETARIA DE ESTADO DE INFRAESTRUCTURAS	DEMARCAACION DE CARRETERAS DEL ESTADO EN ARAGON	INGENIERO JEFE: ANGEL MORANZO SALMENCH	DIRECTOR DEL PROYECTO: RAFAEL LOPEZ GUARCA	INGENIERO AUTOR DEL ESTUDIO: IGNACIO NUCHE VINEGRA	ESTUDIO DE INFORMACION
	DIRECCION GENERAL DE CARRETERAS					



Nº TÍTULO	ESCALAS	TÍTULO	CLAVE	Nº PLANO	DESIGNACIÓN	FECHA
	1:5.000 ORIGINALES A-1	ESTUDIO COMPARATIVO DE CORREDORES AL NORTE DEL VALLE DEL EBRO PARA CONEXIÓN DEL EJE CANTÁBRICO CON EL EJE LEVANTE A FRANCIA POR ARAGÓN, PROVINCIAS DE HUESCA, ZARAGOZA Y NAVARRA	EI-1-E-113	2.9	ALTERNATIVA SELECCIONADA PLANTA TRAMO IX - OPCIÓN 2 Y 3 YESA-LUMBIER (ENLACE N-150)	2.001
				HOJA 3 DE 5		Nº PAGINA

Galdera, Erakunde Harremanetarako Departamentuaren eta Gizarte Gaietako Departamentuaren artean dauden koordinazio sistemei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du Erakunde Harremanetarako Departamentuaren eta Gizarte Gaietako Departamentuaren artean dauden koordinazio sistemei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko abenduaren 12ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko abenduaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Ezeolaza Latorre jaunak galdera egin du Erakunde Harremanetarako Departamentuaren eta Gizarte Gaietarako Departamentuaren artean immigrazio-arloan dauden koordinazio sistemei buruz. Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariaren erantzuna:

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko Ioseba Ezeolaza Latorre jaunak honako galdera hau egin du idatziz erantzuteko:

“– Zer koordinazio-sistema edo baliabide daude Erakunde Harremanetarako Departamentuaren eta Gizarte Gaietarako Departamentuaren artean immigrazio-arloan?”

Horri dagokionez, adierazi behar da abenduaren 18ko 91/2006 Foru Dekretuaren bidez Immigrazioarako Bulegoa sortu zela, eta horren helburua zen, hain zuzen ere, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren departamentu ezberdinen artean koordinazio egokia sustatzea. Foru Dekretu horren bidez Immigrazioarako Departamentuarterko Batzordea ere sortu zen. Organo horretan biltzen dira departamentu ezberdinetako

ordezkariak, besteak beste, Gizarte Gaien, Garapenerako Lankidetzaren eta Familiaren, Haurraren eta Kontsumoaren Zuzendaritza Nagusietako titularrak, eta baita Kirol, Gazteria eta Berdintasun alorretan eskumena duten erakunde autonomoen zuzendari kudeatzaileak ere. Horiek guztiak Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Departamentuaren mende daude.

Immigrazioarako Departamentuarterko Batzorde horrek, aldi berean, hari dagozkion auziak garatzen ditu Batzorde Tekniko baten bidez. Bertan, Gizarte Gaien eta Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza Nagusiko Gizarteratze Zerbitzuko profesionalak daude.

Bestalde, eta instituzionalizaturiko koordinazio horretaz haratago, beharren arabera da bi departamentuen artean immigrazioaren alorrean egiten den lankidetzaz.

Ildo horretatik, Gizarte Gaien eta Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza Nagusiko Gizarteratze Zerbitzuko langile teknikoek gaur egun harreman jarraia daukate Immigrazioarako Bulego profesionalekin. Helburua da 2008. urtetik aurrera bere gain hartzea Gizarteratze Zerbitzuak sustatzen eta ikuskatzen dituen zenbait programa.

Horiek horrela, nabarmentzekoa da bi departamentuen arteko lankidetzaz, Nafarroako Gobernuarekin sinatutako hitzarmena ebaluatzeari dagokionez. Hitzarmen horren bidez, ekitaldi honetan garatuko da Nafarroan etorkinak hartzeko eta gizarteratzeko ekintza plana. Auzi hori bi departamentuetako ordezkariak landu dute, Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioko ordezkariekin batera.

Iruñean, 2007ko abenduaren 19an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilaria: María Isabel García Malo